



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2016KO URRIAREN 27AN EGINIKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Miren Itziar Arratibel Imaz
Jesús Peñagarikano Labaka
Arkaitz Fraile Quijera
Hanot Karrera Amondarain
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Eleuterio Sanchez Garcia
Victoria Rodriguez Feloaga
Juan Luis Cid Conde

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

*Ibarran, **bi mila eta hamaseiko urriaren hogeita zazpian** arratsaldeko zazpiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ez-ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave*

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2017 urterako udal zergak eta tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskalaren aldaketa.**
- 2.- 2016 urterako diru-laguntzen harira Gizarte Zerbitzuetan datuen fitxategia sortzea.**
- 3.- Hanot Karrera Amondarain zinegotziaren eskaera: zinegotzi karguari errenuntzia egitea.**
- 4.- EAEko Auzitegi Nagusiaren 257/2016 epaiaren betearazpena eta 92/2016 apelazioan erantzunaren betearazpena.**
- 5.- Galde-erreguak**

LEHENENGOA:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1.- UDAL TASA ETA ZERGAK ARAUTZEN DITUZTEN 2017KO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.

Udal gobernua 2017rako udal tasak eta zergak arautzen dituzten ordenantzaren aldaketaren berri eman du. Honako aldaketa hauek egingo dira:

- A) Izaera orokorrarekin izoztu egingo dira 2017 urteko tasa eta zergak, honakoak izan ezik:
- a) Terrenoen balio-gehitzeari buruzko karga-mota %5, egungoa, %4, baxua baita.
 - b) Indar fiskala 12CV baino handiagoa duten ibilgailuen kuota %10 igotzea eta 11,99 CV artekoena mantentzea, baita autobus, kamioi, traktore , atoi eta bestelako ibilgailuena ere.
 - c) Hiri eta industria hondakinen tarifa %10 igotzea.
 - d) Herri lurzoru, hegal eta zorupearen erabilera pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatik tarifak %10 igotzea, F epigrafea:

1.- Ondasunak edo zerbitzuak txanpon bidez automatikoki saltzeko aparatuak

2.- Mahaiak, mahaitxoak, aulkiak, zoladurak, loreontziak, eguzkitakoak edo antzeko instalazioak:

4.- Establezimendu barnetik zuzenean kalera edozein motatako gaiak salduz zoru erabiltzea eta bide publikoa negozioaren zati gisara erabiltzea.

6.-Kutxazain automatikoen bidez

- B) Kultur tailerretan sartzea Guraso eskola , dagozkion matrikula-kuota eta aplikazio arauekin.

Kontuan izanda Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 legeak, 22.2.e), 49, 70.2 eta 111 art.etan eta Toki Araubidearen arloko Testu Bateginak 56 art.an xedaturikoa.

2016ko urriaren 26ko Ogasun eta Kontuen Batzorde bereziaren irizpena kontutan izanik Udaltzako, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea hasierako izaeraz eta 2017ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, honako zerga eta eranskin hauek: Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga, lurren balio-gehitzearen gaineko zerga. Hori guztia erabaki honen azalpenean jasotakoaren arabera eta II Eranskinean ageri den moduan.

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

ERANSKINA

POTENTZIA ETA IBILGAILU MOTA	KOEFIZIENTEA	KUOTA / EUROAK
<u>a) Autoak</u>		
9 zaldi-indar fiskal baino gutxiagokoak	1,879341	33,89
9 - 11,99 zaldi indarrekoak	1,879341	67,77
12 - 13,99 zaldi indarrekoak	2,230016	134,02
14 - 15,99 zaldi indarrekoa	2,415851	203,27
16 - 19,99 zaldi indarrekoak	2,580035	279,10
20 zaldi indar eta gehiagokoak	2,580035	341,13
<u>b) Autobusak</u>	1,978847	164,84
21 eserleku baino gutxiagokoak	1,978847	234,77
21 - 50 eserleku artekoak	1,978847	293,47
50 eserleku baino gehiagokoak		



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

POTENTZIA ETA IBILGAILU MOTA	KOEFIZIENTEA	KUOTA / EUROAK
<u>c) Kamioiak</u>	1,978847	83,67
Karga erabilgarria 1.000 kg baino gutxiago dutenak	1,978847	164,84
Karga erabilgarria 1.000-2.999 kg dutenak	1,978847	234,77
Karga erabilgarria 2.999-9.999 kg dutenak	1,978847	293,47
Karga erabilgarria 9.999 kg baino gehiago dutenak		
<u>d) Traktoreak</u>	1,978847	34,97
16 zaldi-indar fiskal baino gutxiagokoak	1,978847	54,95
16 - 25 zaldi indarrekoak	1,978847	164,84
25 zaldi indar baino gehiagokoak		
<u>e) Ibilgailuek arrastatzen dituzten atoiak eta erdi-atoiak</u>		
Karga erabilgarria 1.000 kg baino gutxiago dutenak baina 750 kg baino gehiago dutenak	1,978847	34,47
Karga erabilgarria 1.000 - 2.999 bitartean dutenak	1,978847	54,95
Karga erabilgarria 2.999 kg baino gehiago dutenak	1,978847	164,84
<u>f) Beste era bateko ibilgailuak</u>		
Ziklomotoreak	2,374616	10,50
125 c.c. bitarteko motozikletak	2,374616	10,50
125 - 250 c.c. arteko motozikletak	1,978847	14,98
250 - 500 c.c. arteko motozikletak	2,027287	30,71
500 - 1000 c.c. arteko motozikletak	2,165064	65,58
1.000 c.c. baino gehiagoko motozikletak	2,165064	131,17



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.- LURSAILEN BALIO-GEHITZEARI BURUZKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

Karga mota %5 izango da.

BIGARRENA: Onartzea hasierako izaeraz eta 2017ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, honako zerga eta eranskin hauek: zerbitzu publikoak edo administrazio jarduerak burutzeagatik kobratzen den tasa arautzen duen ordenantza, eta bere eranskinak . Hori guztia erabaki honen azalpenean jasotakoaren arabera eta II Eranskinean ageri den moduan.

II ERANSKINA

2. UDALAREN ESKUMENEKO ZERBITZUAK EMATEAGATIKO EDO ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

Tarifak

1. - Etxe-zaborrak

Etxebizitzak	115,39 €
Konposta komunitarioa:	86,63 €
Autokonposta:	80,85 €

2. Merkataritza-establezimenduetako zaborrak

Dendak eta zerbitzuak	251,98 €
Tabernak	304,47 €
Jatetxeak eta garagardotegiak	



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	349,97 €
Hotelak	583,28 €

3. Lantegietako zaborrak

Lantegiak eta industriak 1.500 m2 arte	428,71 €
Lantegiak eta industriak 1.501 eta 3000 m2 arte	529,16 €
Lantegiak eta industriak 3001 m2 eta 5000 m2 arte	661,43 €
Lantegiak eta industriak 5000 m2, baino handiagoak	793,72 €

2.2 IKASTARO BEREZIAK UDAL LOKALETAN

2.2.1 GURASO ESKOLA

Urritik ekainera bitarteko ikastaroa (9 saio). Matrikula: 65€.

Aplikazio arauak:

Lehena.- Izen-ematea Ibarra udal txeko Gizarte Zerbitzuetan egingo da, bulego orduetan , dagokion inprimakia betez, eta ikastaroaren ordainagiria entregatuz.

Bigarrena.- Ikastaroak aurrera egin ahal izateko, gutxienez 8 pertsona beharko dira.

HIRUGARRENA: Onartzea hasierako izaeraz eta 2016ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, honako zerga eta eranskin hauek: jabari publikoaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboagatik ordaintzen den tasa eta bere eranskinak . Hori guztia erabaki honen azalpenean jasotakoaren arabera eta III Eranskinean ageri den moduan.

III ERANSKINA

D^o IDAZPURUA:

UDAL BIDE PUBLIKOETAKO ZORUAREN, HEGALKINEN ETA LURRAZPIAREN ERABILERA PRIBATIBOA EDO USTIAPEN BEREZIA

1.- Ondasunak edo zerbitzuak txanpon bidez automatikoki saltzeko aparatuak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- Unitateko eta urteko.....
50,00 €

2.- Mahaiak, mahaitxoak, aulkiak, zoladurak, loreontziak, eguzkitakoak edo antzeko instalazioak:

- 10 metro koadrora arte, urtean 80,50€
- 11-20 metro koadro arte..... 92,00€
- 21-40 metro koadro arte.....140,00
- 40 metro koadro baino gehiago, 180,00€
- Mahai bat gehienez lau aulkirekin ,
jaietan.....8,20€

3.- Obra-hondakinak edo materialak uzteko edukiontziak:

- Unitateko eta eguneko edo egun-zatiko3,55€

4.- Establezimendu barnetik zuzenean kalera edozein motatako gaiak salduz zorua erabiltzea eta bide publikoa negozioaren zati gisara erabiltzea:

- 10 metro koadro arte.....80,00€
- 10 metro koadro baino gehiago.....100,00€

5.-Txosnak, karpak eta kale saltzaileak.....7,50€/m2 egunean

6.-Kutxazain automatikoen bidez.....360,00€/urtean

7.- Aurrekoetan barne hartu gabeko kasuetan, udalak zehaztuko du tasaren zenbatekoa, kasu bakoitzaren berezitasunak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

LAUGARRENA:

Espedientea jendurrean jartzea interesatuen entzunaldira hogeita hamar eguneko epean eta iragarki taulan nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 16.1, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak 16.1 art.an xedaturikoari jarraiki interesdunek alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Alegaziorik edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betikotzat joko da aurreko zergen aldaketa



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENGOA **2016 URTERAKO DIRU-LAGUNTZEN HARIRA GIZARTE ZERBITZUETAN DATUEN FITXATEGIA SORTZEA**

Gizarte Politika, Politika Feminista eta Aniztasun batzordeak, 2016ko urriaren 21ean eginiko bilkuran, bertaratuen gehiengo osoz, onartu zuen fitxategi hau sortzea: "Gizarte jardueretarako laguntzen kudeaketa". Helburua da Gizarte zerbitzuen arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateei diru-laguntzak kudeatzea eta administrazio kudeaketa egitea .

2016ko urriaren 21eko Gizarte Politika, Politika Feminista eta Aniztasun Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea fitxategi hau sortzea: "Gizarte jardueretarako laguntzen kudeaketa". Helburua da Gizarte zerbitzuen arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateei diru-laguntzak kudeatzeko eta administrazio kudeaketa egiteko fitxategia sortzea, I Eranskinean jasotako datuen arabera.

BIGARRENGOA: Testu hau osoki Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 15/1999 Lege Organikoaren 20. 1 Artikuluak agindu bezala.

HIRUGARRENGOA: Erabakiaren berri ematea Datuen Babeserako Euskal Agentziari, horrela agintzen baitu 2/2004 Euskal Legebiltzarreko Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2 art.ak. Ondoren, Datuen Babeserako Erregistroan izen emango zaio da eta Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren Erregistroan sartuko da.

VI. ERANSKINA

Identifikazioa	GIZARTE JARDUERETARAKO LAGUNTZEN KUDEAKETA
Helburua	Helburua: Gizarte zerbitzuen arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateei diru-laguntzak kudeatzeko eta administrazio kudeaketa egiteko fitxategia
Fitxategiaren arduraduna	Ibarrako udala
Atala	Gizarte zerbitzuak
ARCO eskubideak	Ibarrako udala
Nori eragiten dio	Erakunde , norbanako eta elkarteak.
Datuen jatorria	Interesduna edo bere legezko ordezkaria, administrazio publikoak
Biltze prozedura	Formularioak korreo elektronikoko bidez



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Erabilitako euskarria	Papera
Fitxategiaren egitura	Identifikazio datuak: Izen-abizenak, tel. NAN, helbidea, e-mail Ekonomiko finantzario eta aseguruak Banku datuak Bestelakoak (erakundeen legezko ordezkarien datuak)
Datuak lagatzea	Ez da aurreikusten.
Nazioarteko transferentziak	Ez da aurreikusten.
Segurtasun maila	OINARRIZKOA
Kokapena	Udaletxeko informatika sistemak eta artxiboa.

HIRUGARRENGOA

HANOT KARRERA AMONDARAIN ZINEGOTZIAREN ESKAERA: ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA

2016ko urriaren 25ean 1886 erregistro zenbakiaren erregistraturiko idatziaren bidez, Hanot Karrera Amondarain jaunak, bere zinegotzi karguari uko egiten dio eta honengatik bideratzen den espedientearen berri Idazkariak kontu ematen du.

EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)ko hautagaien zerrendako zazpigarren tokian dagoen JON MIKEL IGLESIAS OTEGUI jaunak 2016ko urriaren 25ean erregistraturiko idatziaren bidez, bera hurrengoa izanik, Zinegotzi karguaren jabe egiteko askoa azaltzen du arloko den legediaren eraginez eta bideratutako espedientearen ondorioz.

Aurreikusiak, Idazkariaren txostena jarraitu beharreko prozedurari buruz entzun ondoren, Udaltzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Bere Zinegotzi karguari uko eginez Hanot Karrera Amondarain jaunak aurkeztutako idatzia kontutan hartu eta jakinean geratu.

BIGARRENGOA: Hauteskunde Batzorde Nagusiaren jakinean jarri, EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)k aurkeztutako hautagaien zerrendatik hurrengoa den eta Zinegotzi kargua hartzeko asmoa azaldu duen Jon Mikel Iglesias Otegui jaunaren izenean dagokion izendapena egiteko.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LAUGARRENGOA
EAEKO AUZITEGI NAGUSIAREN 257/2016 EPAIAREN BETEARAZPENA ETA 92/2016
APELAZIOAN ERANTZUNAREN BETEARAZPENA

257/2016 epaia:

2016ko ekainaren 15ean EAEko Auzitegi Nagusiaren 257/2016 epaiaren bidez, Ibarra Udalak jarri zuen errekurtoa (55/2015 prozedura laburtuan emandako 3/2015 sententzia aurkatzen zuena) ez du onartzen eta ondorioz 3/2015 sententzia berresten du.

3/2015 epaiak aldiz honakoa adierazten zuen: Estatuko abokatuak 2013ko abenduaren 23an Udaltzak onarturiko erabaki bat aurkatzen du. Bertan, Alkatearen soldataren erregimen berria zehazten zen (Alkatearen soldata 41.470,10 eurotan zehaztu zen). Abenduak 23ko 27/2013 Legearen arabera (Tokiko Administrazioaren arrazionalizatzeko eta jasangarritasunaren ingurukoa) 1.000 eta 5.000 biztanle bitarteko herrietan ezingo da 40.000 euro baino gehiago ezarri ordainsari gisa. Ondorioz, epaiak 1.470,10 euroko itzulpena egitea eskatzen du eta Alkatearen soldata 40.000 eurotan zehaztea.

Kontutan izanik 3/2015 sententzian honakoa adierazten dela: Artículo 75 bis Régimen retributivo de los miembros de las Corporaciones Locales y del personal al servicio de las Entidades Locales 1.- Los miembros de las Corporaciones Locales serán retribuidos por el ejercicio de sus cargos en los términos establecidos en el artículo anterior. Los Presupuestos Generales del Estado determinarán, anualmente, el límite máximo total que puedan percibir los miembros de las Corporaciones Locales por todos los conceptos retributivos y asistencias, **excluidos los trienios a los que en su caso tengan derecho aquellos funcionarios de carrera** que se encuentren en situación de servicios especiales...

Kontutan izanik, 2016ko azaroaren 9an Tolosako Udalak egindako ziurtagirian adierazten dela Jexus Peñagarikano Labaka jauna Tolosako Udaleko langile finkoa dela 1983ko otsailaren 10etik "funcionario de carrera que se encuentra en situación de servicios especiales" egoeran dagoela alegia. Bestalde, ziurtagiri berean argi adierazten da 2013ko martxoaren 1ean 10 urte bete zituela eta hirurteko bakoitzeko 48,51 euro hilean jasotzen dituela guztira urtero aintzinasun kontzeptupean 485,10 euro jasotzen zituela Tolosako Udalean.

Ibarra Udalean 2011ko ekainaren 14an alta eman zitzaion Alkate postuan. Bere ordainsaria zehazterako orduan, Tolosako Udalean ordaitzen zitzaion soldata bera mantendu zitzaion (eransten dira Tolosako Udaleko 2011ko maiatzeko nomina eta Ibarra Udaleko 2011ko uztaileko nomina) 2.878,67 euro gordin hileroko aintzinasuna barne (436,59 euro hileroko).



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontutan izanik hilekoak soldata gordinetik kanporatu behar direla, hilero 2442,08 euro gordin hilero (2442,08 x 14 hile = 34.189,12 euro urtean). Eransten dira aipaturiko nominak.

2014 eta 2015 urtean aldiz, Jexus Peñagarikano Labakaren hileko soldata gordina (aintzinasuna barne) 2.962,15 eurokoa zen. Aintzinasun kontzeptuan aldiz 485,10 euro ordaintzen zitzaizkion eta ondorioz hilero 2.962,15 – 485,10 = 2.477,05 euro (2.477,05 x 14 hile = 34.678,7 euro urteko soldata gordina). Erasten dira 2014ko azaroko nomina eta 2015eko urtarrileko nomina.

Ikusita abenduak 23ko 27/2013 Legearen arabera (Tokiko Administrazioaren arrazionalizatzeko eta jasangarritasunaren ingurukoa) 1.000 eta 5.000 biztanle bitarteko herrietan ezingo da 40.000 euro baino gehiago ezarri ordainsari gisa, Ibarra Udalak betetzen du 2016ko urtarrilak 7an Donostiako Administrazio Auzietako 1 zenbakiko Epaitegiak emaniko 3/2015 sententzian eskaturikoa. 40.000 euro gordinetako soldata ez da gainditzen 2014 urtean ez eta 2015 urtean ere, Jexus Peñagarikano Labak jasotako urteko soldata gordina 34.678,7 euro izan baitira aintzinasuna soldatatik kanporatuz gero.

Aurreikusitako aztertu ondoren, Udaltzako, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA: Administrazioarekiko Auzietako 1 zk.ko epaitegiak 55/2015 prozedura laburtuan emandako 3/2015 sententziak eskatutakoa bete dugula adieraztea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Administrazioarekiko Auzietako 1zk.ko epaitegiari (erabaki honekin dagokion dokumentuak erantsiz 3/2015 sententzia bete dela adierazteko)

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri eman Jexus Peñagarikano Labaka jaunari.

92/2016 apelazioaren erantzuna:

2016ko urriaren 25ean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1 zk.ko epaitegiak 148/2014 prozedura arruntean emandako epaiaren aurkako (151/2015 epaia) apelazio-errekurtsoan eman zen epaia igortzen digu. Epaia irmoa da eta bertan, Ibarra Udalak ezarritako apelazio-errekurtsoa (92/16) ez du onartzen eta ondorioz 151/2015 epaiak esandakoa bete beharko da.

Epaia: 2013ko abenduaren 26an onartu ziren HAPOaren erredakziorako eta aholkularitzarako plegu teknikoak eta administratiboak. Pleguaren 22. artikulua arabera, erredakzio taldekide guztiei B2 euskera maila eskatzen zitzaien. Bestalde pleguko 9. artikuluko 6 eta 8. parrafoetan



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

talde erredaktoreak erabili behar duen hizkuntza maila eta erlazioetan erabili beharreko hizkuntza zehazten da. Epaitegiaren arabera, HAPOaren erredakziorako eta aholkularitzarako taldearen kontratazioa egiteko pleguetako 22. artikulua eta 9. artikuluko 6 eta 8. parrafoak legez kontrakoak dira. Ondorioz, artikulua hauek indar gabetu beharko dira.

Aurreikusiak, Idazkariaren esanak entzun ondoren,
Udalbatzak, aho-batez, 10 aldeko botorekin (6 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1 zk.ko epaitegiak 148/2014 prozedura arruntean emandako 151/2015 epaia betez, 2013ko abenduaren 26an onartu ziren HAPOaren erredakziorako eta aholkularitzarako plegu administratiboaren 22. artikulua eta 9. artikuluko 6 eta 8. parrafoak legez kontrakoak izanik indargabe utzi eta deuseztea.

BOSGARRENA:
GALDE-ERREGUAK

Ez dago inolako galde-erregurik.

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogei direnean. Nik, behin-betiko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.